

Ilusiorik gabe, akidurarik ez

• JOXE AZURMENDI •

[FILOSOFIA]

Euskal botere bat nahi bada, norbaitek galdu behar du botere zati hori. Eta ez du gogo onez galduko bakebakean eta «demokratikoki». Boterean ebakitzea, haragi bizian ebakitzea da nonbait. Min ematen du. Orduan, agian astoa bai, baina franko logikoa da, segitzen den bortizkeria. «Mehatxatua» sentitzen den boterearen biolentziaz mintzatzea, kasi pleonasma bat da hortaz. Ezein klase eta ez herri askatu da sekula negar eta borroka gabe.

A priori denok badakigun horrek, piska bat ustekabean harapatzen gaitu beti, Boterearen prepotentzia eta astakeria gertatu, hamaikagarren aldiz izan arren, berriro gertatzen denean. Ezin ulertu izaten dugu «injustizia». (Oleagak apatu duen Politikoak, Epaila eta Kazetariaren aliantza estua bezala konfiguratuta Ordena publikoa, Estatua). Pepe Rei kartzelan, Donostiako kazetari guztiek erakutsi dioten solidaritate paregabearekin —Madrilgoek zer esanik ez—. Getxo eta Leioako gazteen atxiloketa eszenifikatua eta telebisatzeko enkarguaz poliziarekin joan ziren kazetari mertzenarioak. Lehenagotik ere: Mahain Nazionala preso, eta abar., klase politikoaren kontzientzia txarrik ez deus. Diseinu politiko bati obeditzen dioten atxiloketak eta aldagoi propagandistikoak. Tlotte hil da. Brouard. Boterearen abuso hutsak eta injustiziak, eta «demokraten» ententea.

Injustizia? Ez, *Raison d'Etat*. Izan ere, zapalduak errazegi egiten duen etikaren eta politikaren identifikazioa utzirik, teoria politiko soil-soilean, boterea definizioz biolentzia latentea da, eta justizia

biolentzia/boterearen baliabide sinbolikoetariko bat besterik ez. «Justizia», poliziaren borrak eta metrailetak bezalaxe, boterearen tresna bat da.

Hori pentsatzeak, beharbada, ez desesperatzen lagunduko digu.

Holako biolentziarentzat Bake Mugimendu batzuek sentsibilitaterik ez ote daukaten, geratu ohi naiz aldika. Ez ote dute ezer esango? Egingo?

Boterea, zeinnahi medioz besteren erresistentziaren aurka norbere gogoia edo xedeak baliarazteko ahalmena da, Max Weber-en definizioaren arabera. (Denok badakigu boterea zer den, baina Max Weber-en aipu batekin hobeto dakigula ematen du). Esan ohi da, asmoak eta helburuak, denak libre daudela demokrazian. Horiek debekatzeko ere badaki botereak, komeni bazaio. Baina jeneralean «zibilizatuagoa» da, boterearen baliabide fisiko, sozial-ekonomiko edo sinbolikoen pean haiek, debekatu gabe, guztiz legalki zanpatzea.

Boterearen ikuspegitik ikusita, demokrazian dena libre, nik nahi dudana zuk nahi izatea dago. Nik nahi ez dudana nahi baduzu, ikusiko dugu zein libre dagoen. Boterea medio «legal» guztiez balia daiteke —hasteko, legeaz beraz: berak egiten eta desegiten baitu—, zu hondatzeko.

Helburuak eta asmoak izan daitezke munduko legezkoenak. Egiaren orduan argi geratzen da, asmoak asmo ala legeak lege, egiazko arazoa boterea dela. Baduzu ala ez duzu. Politikaren esentzia.

Eskaramuza txikiagoen egunean hori disimula daiteke —boterearen intelektualen eta Bake Mugimenduen egitekoa izaten da de-

korazio lan hori—; baina problemak benetan serio jartzen direnean, politika ere serio jartzen da. Orduan botereak musugorri eta belo gabe erakusten du aurpegia. Biolentzia. Estatua dago jokoan. Eta Estatua —PP, PSOE, etc.; epaileak, etc.—, kaserna osoa, korneta jo eta, firme jartzen da.

«Ikaragarria da», pentsatzen dugu batzuetan ikaratuta. Zer nahi duzu, ba? Logikoa da. «Ikaragarria da (are: «antinatura da!»), esklabo batek libre izan nahi izatea», esango zukeen Aristotelesek. Eta Hiriarren arma fisiko, material eta sinboliko guztiak ontzat emango zituzkeen, libre izan gura zuen esklabo matxinoa zanpatzeko. «Naturaren ordena» zaintzeko, alegia, bere filosofian.

Ez dago boterearen gaiztoaz zer eskandalizatu. Filosofia deitoratzen edo Aristoteles handia negartzeko geratzea litzateke, esklaboak egin lezakeen gauzarik tontoena munduan, egiaz nahi duena, libre izatea baldin bada. Askatasuna ez diote filosofiak edo justiziak emanngo, bere eskuen botereak baino.

Botereak zanpatzen gaitu eta botereak askatzen gaitu.

Boterea gauza asko baita. Agintea eta errepresioa. Baina borrokako indarra ere bai. Antolaketa on bat, proiektu bat, iraupena, presioa. Helburu bat. Besteren erresistentziaren aurka norbere gogoia eta xedeak nagusiaraztea zeinnahi medioz, besterik ez da boterea. Sua da eta irribarre bat, jomuga batera bideratuta.

Pepe Reiren kartzela da. Eta askatasunaren untzia munduko itsasoan. Boterea boterearen aurka —ilusio platonikorik gabe—, zeinek irabazi. Bizitzaren lege kurdela eta pozgarria.